BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

2466

93/2012 DEKRETUA, maiatzaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailetako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzeko dena (behin-behineko langileak).

Urriaren 14ko 226/1997 Dekretuaren bidez, karrerako funtzionarioentzat eta lan-kontratudun langileentzat gordetako lanpostuen zerrendak onartu ziren. Dekretu hori hainbat aldiz aldatu da.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 14. artikuluan ezartzen duenez, lanpostu-zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langile finkoentzat eta behin-behineko langileentzat gordetakoak bereiziz. Xedapen hori betetzeko, martxoaren 20ko 44/2007 Dekretua argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailetako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartu zituen dekretua aldatzeari buruzkoa. Dekretu horrek, hain zuzen ere, behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrendak onartu zituen, eta apirilaren 19ko 92/2005 Dekretua ordezkatu zuen, azken hori, 2006ko urtarrilaren 12an Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak emandako epaiaren bitartez, deuseztatu egin baitzen. Geroztik, hainbat aldiz aldatu da dekretu hori, eta uztailaren 12ko 464/2009 Dekretuaren bidez gauzatutakoa izan zen garrantzitsuena.

Lanpostuen zerrendak Administrazioaren barne-egiturak antolatzeko tresna gisa sortzen dira; horregatik, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu diren eta aldeko ebazpena eman zaien aldaketak sartu behar dira aldian-aldian, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 18. artikulua eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko uztailaren 30ean hartutako Erabakia betetze aldera. Aipatutako erabaki horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzura dauden behin-behineko langileen araubide juridiko orokorra eta egiturazkoa ezartzeko proposamena onartu zen.

Lanpostuen zerrenda honek finkatzen ditu funtsezko ezaugarriak, betetzeko eskatzen diren baldintzak eta lanpostuen ordainsari-erregimenarekiko beharrezkoak diren zehaztasunak, guztiak ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere Erakunde Autonomoetako lanpostuen zerrenda arautzen duen apirilaren 12ko 78/2005 Dekretuaren 5.4 artikuluan ezarritakoaren arabera (urtarrilaren 16ko 6/2007 Dekretuaren araberako idazkera). Horrek, alde batetik, 2005eko azaroaren 18ko Epaiaren epaitzan ezarritakoari erantzuten dio, eta, bestetik, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 15. artikuluan eta Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2002ko uztailaren 30eko Erabakian jasotako xedapenak batzen ditu.

Ondorioz, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko maiatzaren 29an egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrendetan egindako aldaketak onartzea. Zerrenda horiek dekretu honen eranskinean agertzen dira eta martxoaren 20ko 44/2007 Dekretuaren eta beraren ondorengo moldaketen bidez onartu ziren.

AZKEN XEDAPENAK

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko maiatzaren 29an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

ERANSKINA / ANEXO

Kendu:

KODEA	DOT	LANPOSTUAREN IZENA	SAILA	HE	ORDAINSARIA	LM	SAILKAPENA	DEDIKAZIO ERREGIMENA
5001	1	Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusiko aholkularia	Jaurlaritzaren Lehendakaritza	3	23	B	AA	%100
5207	1	Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusiko aholkularia	Jaurlaritzaren Lehendakaritza	3	27	B	AA	%100

Amortización:

COD.	DOT	DENOMINACIÓN DEL PUESTO	DEPARTAMENTO	PL	RETRIBUCIÓN	TP	CLASIFICACIÓN	REG DED
5001	1	Asesor/a de la Secretaría General de la Presidencia	Presidencia del Gobierno	3	23	S	AS	100%
5207	1	Asesor/a de la Secretaría General de la Presidencia	Presidencia del Gobierno	3	27	S	AS	100%

Sortu:

KODEA	DOT	LANPOSTUAREN IZENA	SAILA	HE	ORDAINSARIA	LM	SAILKAPENA	DEDIKAZIO ERREGIMENA
5249	1	Herritarren Partaidetzarako aholkularia	Jaurlaritzaren Lehendakaritza	3	Zuzendari	B	AA	%100
5250	1	Komunikabideekiko Harreman Instituzionalerako aholkularia	Jaurlaritzaren Lehendakaritza	2	18	B	AA	%100

Creación:

COD.	DOT	DENOMINACIÓN DEL PUESTO	DEPARTAMENTO	PL	RETRIBUCIÓN	TP	CLASIFICACIÓN	REG DED
5249	1	Asesor/a de Participación Ciudadana	Presidencia del Gobierno	3	Director/a	S	AS	100%
5250	1	Asesor/a Relación Institucional con los Medios	Presidencia del Gobierno	2	18	S	AS	100%

KLABEAK:

HE: Hizkuntza Eskakizuna

LM: LANPOSTU MOTA
N: Normalizatua
B: Berezitua

SAILKAPENA
AA: Alorreko aholkularitzako lanpostua

DEDIKAZIO ERREGIMENA
%100: Lanaldi osoa

CLAVES:

PL: Perfil Lingüístico

TP: TIPO DE PUESTO
N: Normalizado
S: Singularizado

CLASIFICACIÓN
AS: Puesto de asesoramiento sectorial

RÉGIMEN DEDICACIÓN
100%: Jornada completa